Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea
'Jarduera Poltsa' - 'Bolsa de Actividades '
2017ko Deialdia / Convocatoria

## SARRERA: DEIALDIAREN PLANTEAMENDUA ETA HELBURUA - AGIRI HONEN EDUKIA

Deialdi honen bidez, **Musika Bulegoa** euskal musikagintza-sareko eragileei zuzentzen zaie, interesa duten guztiek 2017ko Jarduera Poltsan txertatzeko proiektu eta jarduerak aurkez diezazkioten Musika Bulegoari, elkartearen hiru «jarduera-ardatzen» esparruan (trebakuntza, sentsibilizazioa eta hedapena), eta Musika Bulegoaren 2017ko urteko planaren «*Euskal Herriko jardueren*» baitan.

**Agiri honetan,** «Poltsa» horren eraketari eta ondorengo kontratazio-prozesuari buruzko oinarrizko erreferentziak azalduko ditugu.


**I. ATALA.- «JARDUERA POLTSAREN» DEIALDIA: DEFINIZIOA, HELBURUAK ETA JARDUEREN EZAUGARRIAK**

- **1.1.- «Jarduera Poltsaren» definizioa eta helburuak.**
- **1.2.- Kontratu motak.**
- **1.3.- «Jarduera Poltsan» sartzeko jardueren esparrua eta tipologia orokorra.**
- **1.4.- Pertsona edo erakunde proposamengileak eta proposamenak aurkezteko era.**
- **1.5.- «Jarduera Poltsaren» eraketa.**

**II. ATALA.- BALORAZIOA ETA KONTRATAZIOA, PROZEDURA**

- **2.1.- Proposamenak baloratzeko eta kontratatzeko prozedura.**
- **2.2.- Alderdi kontratugilearen (Musika Bulegoaren) eta alderdi kontratatuen (erakunde proposamengileen) konpromisoak.**

**III. ATALA.- «2017KO JARDUERA POLTSA»: PROIEKTUAK AURKEZTEKO ETA KONTRATATZEKO EPEAK ETA ERREFERENTZIAK**

- **3.1.- «2017ko Jarduera Poltsa» kudeatzeko epeak.**
- **3.2.- 2017ko kontratazioetarako erreferentzia ekonomikoak.**


## INTRODUCCIÓN: PLANTEAMIENTO Y OBJETO DE LA CONVOCATORIA - CONTENIDO DE ESTE DOCUMENTO

**Musika Bulegoa** a través de la presente convocatoria se dirige a los diferentes agentes del tejido musical vasco para que aquellos agentes interesados puedan proponer a *Musika Bulegoa* proyectos y actividades susceptibles de formar parte de la Bolsa de Proyectos 2017. Todo ello, en el marco de tres de los 'Ejes de actividad' de la asociación (Formación, Sensibilización y difusión) y dentro de las *'Actividades en Euskal Herria'* del Plan anual 2017 de M.B

**En el presente documento** se explican las referencias básicas relativas a la configuración de dicha 'Bolsa' así como al proceso posterior de contratación


**APARTADO I.- CONVOCATORIA 'BOLSA DE ACTIVIDADES': DEFINICIÓN, OBJETIVOS Y CARACTERÍSTICAS DE LAS ACTIVIDADES**

- **AP-1.1.-Definición y Objetivos de la 'Bolsa de Actividades '.**
- **AP-1.2.- Tipología de los contratos.**
- **AP-1.3.- Marco y tipología general de las actividades a incluir en la 'Bolsa de Actividades'.**
- **AP-1.4.-Personas o entidades proponentes y forma de presentación de las propuestas.**
- **AP-1.5.-Configuración de la 'Bolsa de Actividades'.**

**APARTADO II.- VALORACION Y CONTRATACIÓN, PROCEDIMIENTO**

- **AP-2.1.-Procedimiento para la Valoración y Contratación de propuestas.**
- **AP-2.2.- Compromisos de la parte contratante (MB) y de las contratadas (entidades proponentes)**

**APARTADO III.- 'BOLSA DE PROYECTOS 2017': PLAZOS Y REFERENCIAS PARA LA PRESENTACIÓN Y CONTRATACIÓN DE PROYECTOS**

- **AP-3.1.-Plazos de gestión "Bolsa de Actividades 2017".**
- **AP-3.2. Referencias económicas para las contrataciones en 2017.**

## I. ATALA.- «JARDUERA POLTSAREN» DEIALDIA: BILDUKO DITUEN JARDUEREN DEFINIZIOA, HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

### 1.1.- «Jarduera Poltsaren» definizioa eta helburuak.

#### *1.1.1.- Definizioa eta helburua*

Urteko jardueraren eta proiektuen esparruan, musika-sektorearen eragileek diseinatu eta proposatutako **jarduera-katalogo bat («Jarduera Poltsa») eskuratu nahi du *Euskal Herriko Musika Bulegoak***, eragile horiexek jorratu eta sustatzeko asmoarekin. «Poltsa» horren bitartez eta **urteko plangintzaren, beharrizanen eta eskura dituen baliabideen arabera**, *EHMBE*k (***Musika Bulegoa***k) jarduera horien sustapena eta garapena kontratatuko du eragileekin.

#### *1.1.2.- «Jarduera Poltsaren» helburuak.*

a) *Euskal Herriko Musika Bulegoa* proiektuaren helburu orokorrekin eta jarduera-ardatzekin bat datozen esparruetako ekimenak sustatu eta indartzea.

b) Musika Bulegoaren jarduera areagotzea, musika-sektorearen eta gizarte osoaren zerbitzuan dagoen erakunde gisara.

c) Musika-sektorean eta gizarte osoan «Musika Bulegoa» proiektuaren ezagutza sendotzea eta, horretarako, marka horren presentzia eta ikusgarritasuna areagotzea jarduera-eremu jakin batzuen harira.

### 1.2.- Jardueren kontratazioa eta kontratu motak.

DEIALDI HONEN BIDEZ, BI KONTRATU MOTA LOTUKO DIRA ERAKUNDE PROPOSAMENGILEEKIN, PROPOSATUTAKO JARDUEREN EZAUGARRIEN ARABERA ETA MUSIKA BULEGOAK ANTOLAKUNTZAN NAHIZ EKONOMIKOKI IZANGO DUEN PARTAIDETZAREN ARABERA:

## APARTADO I.- CONVOCATORIA ‘BOLSA DE ACTIVIDADES’: DEFINICIÓN, OBJETIVOS Y CARÁCTERÍSTICAS DE LAS ACTIVIDADES QUE RECOGERÁ

### AP-1.1.- Definición y Objetivos de la ‘Bolsa de Actividades’

#### *1.1.1. – Definición y objeto*

En el marco de sus Ejes de actividad y proyectos anuales, *Euskal Herriko* ***Musika Bulegoa*** **desea contar con un catálogo de actividades -‘Bolsa de Actividades’-,** diseñadas y propuestas para su desarrollo y/o promoción por parte de los propios agentes del sector musical. A través de dicha ‘Bolsa’ *E.H.M.B.E.* -***Música Bulegoa*-, en función de su planificación anual, necesidades y recursos disponibles, contratará** con dichos agentes el desarrollo y/o promoción de dichas actividades.

#### *1.1.2.- Objetivos de la ‘Bolsa de Actividades’*

d) **F**omentar y potenciar iniciativas en los ámbitos de actividad relacionados con los Objetivos generales y con los Ejes de actividad del proyecto *Euskal Herriko Musika Bule goa*.

e) Incrementar la actividad de Musika Bulegoa como entidad de servicio al sector musical y a la sociedad en general.

f) Potenciar el conocimiento sectorial y social del proyecto MB, incrementando la presencia y visibilidad de dicha marca, con relación a determinados ámbitos de actividad.

### AP-1.2.- Contratación de actividades y Tipología de los contratos.

A TRAVÉS DE ESTA CONVOCTORIA Y EN FUNCION DE LAS CARACTERISTICAS DE LAS ACTIVIDADES PROPUESTAS Y DE LA PARTICIPACION ORGANIZATIVA Y ECONOMICA DE MUSIKA BULEGOA EN LAS MISMAS SE ESTABLECERAN DOS TIPOS DE CONTRATOS CON LAS ENTIDADES PROPONENTES:

**K1.- TITULARKIDETASUN KONTRATUAK:**

Honako ezaugarri hauek dituzten proposamenekin lotuko du kontratu mota hori Musika Bulegoak:

a) MBk honako gai guzti hauek, edo horietako batzuk, negoziatzeko aukera eskaintzen duten jarduerak: datak, tokiak, edukiak, hedapen-estrategiak, prezioa eta abar.
b) Musika Bulegoari gastuen aurrekontuaren % 50etik gorako prezioan eskaintzen zaizkion jarduerak, baldin eta azkenean MBk kontratatzea onartzen badu (ikusi aurrekontu-erreferentziak, 1.2.1.f puntua).
c) Jarduera horien berri ematen denean, Musika Bulegoa beti eragile antolatzailekide gisa agertuko da (ikusi elkarrekiko konpromisoak, 2.2.3. puntuan).

**K2.- BABESLETZA KONTRATUAK:**

Honako ezaugarri hauek dituzten proposamenekin lotuko du kontratu mota hori Musika Bulegoak:

a) Dagoeneko data edo testuinguru jakin batean (adibidez, jaialdi zehatz batean) programatuta dauden jarduerak, edota, oro har, MBri edukiak eta hedapen-jarduerak negoziatzeko tarte txikia eskaintzen zaizkion jarduerak.

b) Musika Bulegoari gastuen aurrekontuaren % 50etik beherako prezioan eskaintzen zaizkion jarduerak, baldin eta azkenean MBk kontratatzea onartzen badu (ikusi aurrekontu-erreferentziak, 1.2.1.f puntua).

c) Jarduera horien berri ematen denean, Musika Bulegoa erakunde laguntzailetzat/babesletzat agertuko da eta honako eskubide hauek izango ditu:

   - Sustapen-euskarrietan agertu beharko da erakunde antolatzailekide gisa, eta antolatzailekidetzat gonbidatua izango da kontratatutako proiektuaren aurkezpenetara –prentsa eta abar–.

   - Jardueraren antolaketari eta finantzaketari lotutako erabakien berri eman beharko zaio, eta gai horietan alderdi inplikatua izango da.

**Kontratuaz ari garenean**, bi alderdiek **—*Musika Bulegoa*k eta eragile proposamengileak—** jardueraren edo proiektuaren inguruan lotuko duten adostasunaz ari gara.

**K1- CONTRATOS DE CO-TITULARIDAD**:

Musika Bulegoa podrá suscribir este tipo de contratos respecto a propuestas que reúnan las siguientes características:

a) Actividades en las que M.B. tenga posibilidad de negociar todas o algunas de las siguientes cuestiones: fechas, lugares, contenido, estrategias de difusión, precio, etc.
b) Actividades ofertadas a Musika Bulegoa (y finalmente contratadas) por un Precio superior al 50% de su Presupuesto de gastos (Ver referencias presupuestarias, Punto 1.2.1.f)
c) En la difusión de estas actividades Musika Bulegoa aparecerá siempre como agente co-organizador (Ver compromisos mutuos en el Punto 2.2.3).

**K2- CONTRATOS DE PATROCINIO**:

Musika Bulegoa podrá suscribir este tipo de contratos respecto a propuestas que reúnan las siguientes características:

a) Actividades ya programadas en fecha y/o en un contexto específico (ej. festivales...), o en todo caso en las que M.B. tenga escaso margen para negociar contenidos y difundir.

b) Actividades ofertadas a Musika Bulegoa (y finalmente contratadas) por un Precio máximo que no supere el 50% de su Presupuesto de gastos (Ver referencias presupuestarias, Punto 1.2.1.f)

c) En la difusión de estas actividades Musika Bulegoa aparecerá como entidad colaboradora / patrocinadora , en cuyo caso tendrá los siguientes derechos:

   - Deberá aparecer en los soportes promocionales y redes sociales como entidad co-organizadora y ser informada e invitada en calidad de coorganizadora a cualquier presentación –prensa, etc.- a realizar en torno al proyecto contratado.

   - Deberá ser informada y será parte implicada en decisiones relativas a la organización y financiación de la actividad.

**Se entenderá por contrato** el acuerdo que las dos partes -***Musika Bulegoa* y agente proponente-** lleguen respecto al desarrollo del proyecto o actividad propuesta.

| | |
|---|---|
| Aipaturiko irizpideen eta prezioaren arabera, proposamengileek kontratu mota baterako edo besterako aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Ondoren, *Musika Bulegoak* 2017ko Jarduera Poltsaren testuinguru globalean aztertu eta baloratuko ditu horiek guztiak (ikusi proposamenak baloratzeko prozedurak eta irizpideak 2. atalean). | En función de los criterios anteriores y del precio, los concurrentes podrán clasificar a priori sus propuestas para una de las tipologías de contrato citadas, en todo caso, *Musika Bulegoa* realizará sus ofertas en función del análisis y valoración de todas ellas en el contexto global de la Bolsa de Actividades 2017 (Ver procedimiento y criterios de valoración en el Apartado AP- 2) |
| **1.3.- «Jarduera Poltsan» sartzeko jardueren esparrua eta tipologia orokorra.**<br><br>***1.3.1.- Jardueren baldintza orokorrak eta bereziak***<br><br>Musika Bulegoaren «Jarduera Poltsan» sartuko diren proiektuek, eta beraz, Musika Bulegoak epe laburrera edo ertainera kontrata ditzakeenek, **honako profil eta baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:**<br><br>a) Helburuei dagokienez: 1.1.2 puntuan zehaztutako helburuak betetzea.<br><br>b) Pertsona edo erakunde proposamengileei dagokienez: jarduera zehatzaren eremuari lotuta (edo hurbil) egotea.<br><br>c) Jarduera egingo den tokiari dagokionez: *Euskal Herrian* burutzeko pentsatu eta diseinatu diren proposamenak.<br><br>d) Proiektua edo jarduera aurkezteko egun eta leku zehatzei dagokienez, proposamenak bi modutara aurkezteko aukera dago:<br><br>d.1.- Programatu gabeak, dela zehaztu gabe dauden alderdiengatik, dela haien bideragarritasuna *Musika Bulegoa*ren kontratazioaren mende dagoelako. Proposamenean bertan zehaztu beharko da jarduera prestatu eta burutzeko behar izango den gutxieneko epea, proiektua behar bezala gauzatuko dela bermatzeko.<br><br>d.2.- Dagoeneko programatuta daudenak, proposamena egiteko unean, data eta tokia, biak lotuta dituztelako.<br><br>a) Pertsona edo erakunde proposamengilea arduratuko da proiektua diseinatzeaz, ekoizteaz eta zuzentzeaz.<br><br>b) Proposamen ekonomikoa eta prezio-eskaintza *Musika Bulegoa*rentzat: | **AP-1.3.- Marco y tipología general de las actividades a incluir en la 'Bolsa de Actividades'**<br><br>***1.3.1.- Requisitos generales y concretos de las Actividades***<br><br>Las actividades que se incorporarán a la 'Bolsa de actividades' de Musika Bulegoa, y por tanto susceptibles de ser contratadas por Musika Bulegoa, **deberán responder al siguiente perfil y cumplir los siguientes requisitos generales:**<br><br>a) Respecto a objetivos: cumplir con los objetivos definidos en el punto 1.1.2.<br><br>b) Respecto a las personas o entidades proponentes: relacionados con el ámbito propio –o cercano- de su actividad específica.<br><br>c) Respecto al lugar de desarrollo: propuestas concebidas y diseñadas para ser realizadas en el ámbito territorial de *Euskal Herria*.<br><br>d) Respecto a la fecha y lugar de presentación de la actividad, se prevé la posibilidad de que las propuestas puedan presentarse:<br><br>d.1.- No programadas: Ya sea por cuestiones pendientes de definir o porque su viabilidad se plantea a expensas de la contratación de *Musika Bulegoa*. Todas las propuestas deberán incorporar la previsión del plazo mínimo necesario para la preparación y realización de la actividad con las garantías de un correcto desarrollo del proyecto.<br><br>d.2.- Ya programadas: Cerradas en fecha y lugar a la hora de ser propuestas.<br><br>a) La persona o entidad proponente será la encargada del diseño, producción y realización del proyecto correspondiente.<br><br>b) Respecto al planteamiento económico y la oferta de precio a *Musika Bulegoa*: |

Deialdi honek xede duen proiektuen tipologiak, nolabait ere, «irabazteko asmorik gabeko» planteamendu finalista eta aurrekontuzkoa adierazten du. Dena dela, *Musika Bulegoa*k proposatzen duen dinamikaren arabera, proiektu-proposamenak «osoak» izan behar dira aurrekontuaren aldetik, dedikazio profesionalari eta gauzatzeko behar diren baliabideei dagokienez.

Proiektuekin batera, gastu eta sarreren aurrekontu xehatua (aldea = 0) aurkeztu behar da, eta sarreren hipotesiaren barruan, *Musika Bulegoa*ri eskainitako prezioa sartu behar da.

f.1.- Gastuen atalak kapitulu eta kontzeptu hauek hartu ahal izango ditu barne:

- Kontratatutako jarduera jendaurrean aurkezteko/burutzeko gastuak: jardueraren beraren antolaketa, espazioa, langileak, logistika, sustapena eta abar.

- Edukiak diseinatzeko, sortzeko eta ekoizteko aurretiko gastuak (ikerketa, musika, metodologia, euskarriak…) ere sartu ahal izango dira gastuen atalean, baldin eta kontratatu aurretik egin ez badira, horiek burutzeko beste inolako diru-laguntzarik ez badute eta atal horien guztien balioa gastu-aurrekontu osoaren % 20tik gorakoa ez bada.

f.2.- Sarreren atalean sartuko dira aurreikusitako diru-sarrera guztiak eta proiektua burutzean sor litezkeen guztiak ere (adibidez, sarrerak, matrikulak, babesletzak, diru-laguntzak eta abar).

f.3.- Musika Bulegoari eskainitako prezioa

- Titularkidetasun-proposamenak: MBri eskainitako prezioa aurreikusitako gastuaren % 100era irits daiteke (ondoren MBren eta erakunde proposamengilearen artean bestelako adostasuna lotu badaiteke ere).

- Babesletza-proposamenak: prezioa ez da inoiz gastu-aurrekontuaren % 50 baino handiagoa izango.

Proposamen ekonomikoa eta eskainitako prezioa balorazio-irizpide garrantzitsuak izango dira *Musika Bulegoa*rentzat.

Kontratuan hartzen diren konpromisoek aldarazi egin ahal izango dute aurrekontua, bai gastuen kapituluan, bai sarrerenean. Hala badagokio, kontratazio-fasean bi aldeek berriro zehaztu edo egokitu ahal izango dituzte eragile proposamengilearen hasierako proposamenaren edo eskaintzaren gai jakin batzuk, baita, jakina, prezioa ere.

La tipología de proyectos objeto de esta convocatoria señala de algún modo un ámbito o planteamiento 'sin ánimo de lucro'. Ahora bien, *Musika Bulegoa* propone una dinámica en la que los proyectos se planteen presupuestariamente 'completos' respecto a la dedicación profesional y recursos necesarios para su desarrollo.

Los proyectos deberán presentarse acompañados de un presupuesto desglosado y equilibrado de Gastos e Ingresos (dif.= 0), incluyendo dentro del apartado de Ingresos el Precio que se oferta a *Musika Bulegoa* .

f.1.- El apartado de Gastos, podrá contemplar los correspondientes a los siguientes capítulos / conceptos:

- Gastos relativos a la presentación/desarrollo público de la actividad contratada: organización previa de la propia actividad, espacio, personal, logísticos, promoción; etc.

- Podrán incluirse gastos previos relativos al diseño, creación y producción de contenidos (investigación, musicales, metodológicos, soportes, etc.), siempre y cuando éstos no sean anteriores a la contratación, no cuenten con algún tipo de subvención para su desarrollo y el valor total de los mismos no sea superior al 20% del presupuesto total de gastos.

f.2.- El apartado de ingresos contemplará tanto los Ingresos previstos como aquellos posibles de generar en la realización del proyecto (por ejemplo: entradas, matrículas, patrocinios, subvenciones, etc.).

f.3.- Precio ofertado a Musika Bulegoa

- Propuestas de "cotitularidad": El precio ofertado a MB podrá alcanzar el 100% del presupuesto del gasto contemplado (sin prejuicio de los acuerdos que se puedan alcanzar posteriormente entre M.B. y la entidad proponente.

- Propuestas de Patrocinio: El precio nunca superará el 50 % del presupuesto de gasto.

El planteamiento económico y el precio ofertado constituirán en todo caso criterios importantes de valoración de cara a la posible contratación por parte de *Musika Bulegoa*.

La modificación presupuestaria, ya sea en el capítulo de Gastos o de Ingresos, estará sujeta a los compromisos que se adopten en el contrato. En su caso, durante la fase de contratación las dos partes podrán acordar , redefinir o redimensionar cuestiones

concretas relativas a la propuesta-oferta inicial elaborada por el agente proponente, incluido el precio.

| | |
|---|---|
| **1.3.2.- «Jarduera Polsa»: jarduera-ardatzak eta jardueren adibideak.** | **1.3.2.- 'Bolsa de actividades': Ejes de actividad y ejemplos de actividades** |
| «Jarduera Poltsaren» deialdi honek MBren honako jarduera-ardatz hauek azpimarratu nahi ditu: | La presente convocatoria 'Bolsa de Actividades', desea incidir en los siguientes Ejes de actividad de M.B.: |
| **1.3.2.1.- 3. ardatza: trebakuntza.** *Definizioa eta adibideak* | **1.3.2.1.- Eje 3: Formación :** *definición y ejemplos* |
| Ardatz horren barruan sartuko dira, alde batetik, euskal musikarekin lotutako eragileen etengabeko prestakuntza, eta bestetik, publiko orokorrari zuzendutako jarduerak, betiere proposamenak prestakuntza-esparrurako metodologia argia jasotzen badu.<br>Ardatz horretako ***jardueren adibideak:*** hitzaldiak, lantegiak, ikastaroak, master-ikastaroak eta abar. | Dentro de este Eje se incluirán por una parte actividades destinadas a la formación de agentes relacionados con la escena musical vasca y por otra actividades destinadas al público en general, siempre y cuando la propuesta plantee un marco de formación con una metodología formativa y didáctica clara.<br>***Ejemplos de actividades*** en este Eje: conferencias, talleres, cursos, master-clases, etc. |
| **1.3.2.2.- 4. ardatza: sentsibilizazioa.** *Definizioa eta adibideak* | **1.3.2.2.- Eje 4: Sensibilización**: *definición y ejemplos* |
| Ardatz horren barruan sartzen diren proiektuen helburu nagusia herritarrak sentikortzea da *Euskal Herrian* sortu eta ekoiztutako musikaz –egungoaz zein iraganekoaz–, euskal musikaren ezagutza, estimazioa eta presentzia soziala indartzeko. Hartzaileei dagokienez, jarduerak publiko orokorrari edo publiko jakin batzuei (haurrei, behar bereziak dituzten kolektiboei, sektore baztertu edo minorizatuei...) zuzendu ahal zaizkie.<br>Ardatz horretako ***jardueren adibideak:*** erakusketak, hitzaldiak, hitzaldi musikatuak, zine-forumak... | Dentro de este Eje se incluirán actividades cuyo objetivo principal sea el de sensibilizar a la ciudadanía respecto a la música creada y producida en *Euskal Herria* -ya sea actual o pasada-, reforzando el conocimiento y aprecio por ella y su presencia social. Los destinatarios podrán ser el público en general o públicos específicos (infantil, familiar, colectivos con necesidades especiales, sectores marginados o minoritarios, etc.).<br>***Ejemplos de actividades*** en este Eje: exposiciones, conferencias, charlas musicadas, cine-fórums, etc. |
| **1.3.2.3.- 5. ardatza: sustapena eta hedapena:** *definizioa eta adibideak* | **1.3.2.3.- Eje 5: Promoción y difusión:** *definición y ejemplos* |
| Euskal musikagintzaren jarduera ezagutzera emateko eta haren ikusgarritasuna areagotzeko komunikazio- eta zabalkunde-proiektuak sartzen dira ardatz horretan, betiere zeharkakotasuna eta ikuspegi kolektiboa aintzat hartuta (eragile kopuru zabal eta anitzean eragin behar dute, kontuan hartuta proposamenak orotariko ikuspegiak eta irismenak izan ditzaketela, bai eszenari dagokionez, bai arlokako bestelako jarduerei dagokienez).<br>*Ardatz horretako **jardueren adibideak:*** agendak, gidaliburuak, zirkuituen zabalkundea, argitalpenak, dokumentalak… | Dentro de este Eje se engloban aquellos proyectos de comunicación y difusión cuyo objetivo sea el dar a conocer la actividad del sector musical vasco y reforzar la visibilidad de este siempre desde un punto de vista transversal y colectivo **(**con incidencia clara en un número amplio y diverso de agentes, entendiéndose en todo caso que las propuestas puedan tener enfoques y alcances especializados distintos, ya sea respecto a la propia escena o respecto a otras actividades sectoriales).<br>***Ejemplos de actividades*** en este Eje: **agendas, guías, difusión de circuitos, publicaciones y documentales, etc.** |
| ***Oharrak:***<br>– *Jarritako adibideen zerrendak orientagarriak dira, ez zehatzak eta ez baztertzaileak.*<br>– *Ziurrenik, proposamen batzuek jarduera-ardatz bat baino gehiago landuko dituzte. Halakoetan, proposamen bakoitzean pisu handiena duten elementu espezifikoak identifikatu eta aipaturiko ardatzetan kokatuko ditu Musika Bulegoko Idazkaritza Teknikoak, «Proiektu Poltsa» antolatu eta balorazioa errazteko asmoz.* | ***Observaciones:***<br>– *Los listados de ejemplos que se aportan son meramente indicativos, no totales ni excluyentes*<br>– *Es previsible que algunas propuestas trabajen contenidos relacionados con más de uno de los ejes de actividad. En tal caso, la Secretaría técnica de MB tratará de identificar los* |

*elementos específicos con mayor peso en cada propuesta y, con objeto de facilitar la valoración y organizar la 'Bolsa de Proyectos' ubicara las propuestas en los ejes citados.*

#### *1.3.3. Deialdi honetatik berariaz baztertutako proiektuen tipologia*

Aurreko ataletan jasotzen diren aurreikuspenek argi eta garbi mugatzen dituzte deialdi honen esparruak eta irizpideak. Halere, eta nahasketa oro saihesteko asmoz, berariaz deialdi honetatik kanpo gelditzen diren jarduera mota batzuk zerrendatuko ditugu. Hau da:

a) Bere garapen nagusian musika-ikerketa, -sorkuntza eta –ekoizpen proiektuak gauzatzea dakarten jarduerak.

b) Zuzeneko musika-programazioa: kontzertuak, jaialdiak, birak eta abar.

c) Ikastetxe publiko nahiz pribatuek (kontserbatorioek, musika-eskolek, musika-akademiek) edota museoek, liburutegiek, artxibategiek eta abarrek antolatutako irakaskuntza-jarduerak, ohikoak nahiz puntualak.

d) Plataforma eta atari digitalen sorrera.

#### *1.3.3.- Tipología de actividades expresamente excluidos de esta convocatoria*

Las previsiones recogidas en los Puntos anteriores delimitan con claridad los ámbitos y criterios en los que desea incidir la presente convocatoria. Sin embargo, de cara a evitar confusiones, conviene también enumerar algunas actividades o tipología de actividades expresamente excluidos de la convocatoria, concretamente:

a) Actividades cuyo desarrollo central conlleve la realización de proyectos de investigación, creación y/o producción musical.

b) Programación musical en directo: conciertos, festivales, giras, etc.

c) Actividades lectivas habituales o puntuales organizadas por centros educativos, públicos o privados (conservatorios, escuelas de música, academias de música) o museos, bibliotecas, archivos, etc.

d) Creación de plataformas y portales digitales

### 1.4.- Pertsona edo erakunde proposamengileak eta proposamenak aurkezteko era.

#### *1.4.1.- Pertsona edo erakunde proposamengileak*

- **Musikaren alorreko edozein enpresak edo elkartek aurkeztu ahal izango ditu proposamenak**, EHMBEko elkartekide zuzenak edo zeharkakoak izan ala ez. Pertsona fisikoek langile autonomoak direla egiaztatu beharko dute —JEZ—.

- Enpresa edo erakunde eskatzaileak Musika Bulegoaren partaidetza ekonomikoari dagokion fakturan erabiliko den **IFKren titularra i**zan behar du.

#### *1.4.2.- Proposamenak aurkezteko era*

**Proiektu edo jarduera bakoitza berariaz prestatutako inprimaki-fitxan aurkeztu beharko da** (honi erantsita dator). Honako informazio hau jasoko du fitxa horrek:

### AP-1.4.- Personas o entidades proponentes y forma de presentación de las propuestas

#### *1.4.1.- Personas o entidades proponentes*

- **Las propuestas podrán ser presentadas por cualquier empresa o asociación** del sector musical, ya sean entidades asociadas de forma directa o indirecta en *E.H.M.B.E.* o no asociadas. En el caso de personas físicas deberán acreditar su condición de trabajadores/as autónomos/as -IAE-

- La empresa o entidad solicitante deberá de ser la **titular del nº de CIF** que se utilizará, en su caso, para la factura relativa a la participación económica de M.B.

#### *1.4.2.- Forma de presentación de los Propuestas*

**Cada proyecto o actividad deberá presentarse en una ficha- formulario** preparada al efecto (se adjunta) . Dicha Ficha incluirá la siguiente información:

a. Pertsonaren edo erakundearen datuak.

b. Pertsonaren edo erakundearen profila eta ibilbide laburra.

c. Proiektuaren oroitidazkia:

- Definizioa – Jardueraren laburpena – Kontratu mota.
- Testuingurua, helburuak, jarduera-ardatzak eta hartzaileak.
- Antolakuntza-datuak.
- Proiektua prestatu, garatu eta aurkezteko egutegia eta gutxieneko epea.
- Programatutako jarduerak badira: egunaren/egunen eta lekuaren/lekuen xehetasuna.

d. Aurrekontu xehakatua, gastuak eta sarrerak orekatuta.

*e.* *Musika Bulegoa*k kontrata dezan egindako eskaintzaren prezioa.

f. Behar izanez gero, jarduerari lotutako beste agiri edo material batzuk (musikalak, aurreko esperientzien bideoak eta abar; nahitaez, online erreferentziak).

**Pertsona edo erakunde berak nahi adina proposamen egin ahal izango ditu** (horietako bakoitza bere fitxa propioan).

***Oharra:*** *toki eta data batean baino gehiagotan errepika litezkeen jarduerak proposamen bakartzat hartuko dira eta, beraz, denak batera, fitxa bakar batean aurkeztu beharko dira.*

## 1.5.- 'Jarduera Poltsaren' eraketa.

### *1.5.1- 'Jarduera Poltsaren' eraketa*

***Musika Bulegoaren Idazkaritza Teknikoa***k jasotako proposamenak bildu eta honako urrats hauek emango ditu:

a) Deialdi honetan zehaztutako oinarrizko baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, eta deialdian eskaturikoa betetzen ez dutenak baztertu egingo ditu.

